

2024KO MARTXOAREN 21EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bata.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hogeita lau

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortzietan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- AITOR ALDASORO ITURBE

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- Wesley Aritz Corsitto Agirre

ETORRI GABEAK:

EAJ-PNV

- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ

Beasaingo EH Bildu

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA
- IKER URTEAGA REBOLLAR

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute informatikariak (Arantxa Sanz Lasa) eta hauteskunde prozesuaz ere enkargatzen den administrariak (Agurtzane Arakama Laplace).

EUSKO LEGEBILTZARRETAKO HAUTESKUNDEAK, 2024. HAUTESKUNDE-MAHAIK OSATZEKO ZOZKETA.

2024-02-27ko Euskal Herriko Aldizkari ofizialean, Lehendakariak 7/2024 DEKRETUA, otsailaren 26koa, eman zuen Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duena.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak 2024ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren arabera, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 35.3 artikulua babesean, hauteskunde-mahaien zozketa martxoaren 21etik 25era egin daitezke.

Hauteskundeetako mahaiak osatzeko kideen zozketa INEko *IDA Celec* aplikazio informatikoa erabili da.

Hauek dira irizpideak:

1.- Zozketa egiteko Espainiako Estatistika Institutua erakundeak emandako hautesle zentsu osoa erabiliko da, 2023ko abenduaren 1arekiko itxitakoa. Izendatuak idazten eta irakurtzen jakinbeharko dute eta 18 urte edo gehiago eta 70 urte baino gutxiago dutenak izango dira, baina hirurogeita bost urtetik aurrera izendatutakoek uko egin dezakete zazpi eguneko epean alegazioa aurkeztuta.

2.- Beasaingo udalerrian barrutia bakarra da eta zortzi sekzio daude eta ondorengo hauteskunde-mahaiak eta hauteslekuak daude:

MURUMENDI IKASTETXEA	UDALETXEA	LOINAZPE IKASTETXEA
1-U mahaia (letrak: A-Z) 9-A mahaia (letrak: A-K) 9-B mahaia (letrak: L-Z)	2-A mahaia (letrak: A-I) 2-B mahaia (letrak: J-Z) 3-A mahaia (letrak: A-H) 3-B mahaia (letrak: I-Z) 4-A mahaia (letrak: A-H) 4-B mahaia (letrak: I-Z)	5-A mahaia (letrak: A-H) 5-B mahaia (letrak: I-Z) 7-A mahaia (letrak: A-H) 7-B mahaia (letrak: I-Z) 8-U mahaia (letrak: A-Z)

3.- Mahai bakoitzeko ondorengo karguak izendatzen dira:

- Lehendakari, titularra
- Lehendakariaren 1. ordezkoa
- Lehendakariaren 2. ordezkoa

- 1. Mahaikide, titularra
- 1. Mahaikidearen 1. ordezkoa
- 1. Mahaikidearen 2. ordezkoa

- 2. Mahaikide, titularra
- 2. Mahaikidearen 1. ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 2. ordezkoa

4.- Zozketa egiterakoan ordea, erabaki da kargu bakoitzeko lau ordezko aurreikustea (nahiz eta lehenengo biak kontsideratu titularren ordezkoak izateko), alegazioak aurkeztu ondoren mahairen bat kargurik gabe geratu ezkerro berriro ere zozketa ez egin beharra izateko.

5.- Zozketa bakarra egingo da, hau da, mahi guztiak kontuan izanda egingo da eta ez mahai bakoitzeko.

Aipatutako irizpideak kontuan izanda, ondorengo jasota geratu da:

Lehena. Beasaingo udalerriko hamalau mahaiekiko zozketa publiko bakarra egin da, lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko eta bidez batez, mahaiko kide bakoitzak izango dituen bi ordezkoak izendatzeko.

Bigarrena. Zozketa egin ondoren, Idazkariak irakurri ditu mahai bakoitzeko kideak zeintzuk diren.

Hirugarrena. Izendatutakoei jakinaraziko zaie karguaren izendapena eta izendapenarekiko Tolosako Eskualde Hauteskunde Batzordearen aurrean bidezkoak diren alegazioak aurkezteko eskubidea izango dute zazpi eguneko epean.

Laugarren. Alegazioak ebaztea, Tolosako Hauteskunde Batzordeari dagokio.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko zortziak eta hamasei minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.